



— 131 URTE —
**ALDERDIA
GARA**



Aitor Estebanen hitzaldia

Arratsalde on, jeltzaleok. Arratsalde on, Euskadi.

Gaur, aurreratuta, Inazio Deunaren eguna ospatzen dogu. Bilbon, Sabinoren estatua ondoan. Eta gaur, urtero lez, bere sorreraren eguna gogoratzean, Alderdia kondairari aurrez aurre begira jartzen da barriro eta bildur barik, aitzaki gabe, hemen gagoz dinogu. Ehun eta hogeitamaika urte ondoren. Hemen darraigu. Ez da gauza gitxi.

Belaunaldi baten denboran jaio eta hiltzen diren alderdiak dagoz. Batzuk hamarkada baten be. Badagoz hauteskunde kanpaina bakoitzean eraldatzen direnak ere, narrua aldatzen dabenak, haizeak zelan jotzen dauan ikusita kamuflatzen diranak.

Euzko Alderdi Jeltzalea ez. EAJak jomuga berbera lortzeko lanean 131 urte igaro ditu zentzuzko bidean, urteetan zehar aberriarekin batera bilakatuz. Euzkadi eraikitzen, adreiluz adreilu, hitzarmenik hitzarmen, erakundez erakunde. Euskadi eraikitzeak hobeto, askeago, aukera gehiagorekin bizi gaitezkan baldintzak sortzea esan nahi dauhalako.

Sasoi hobeak nahiz txarretan. Sufrimenduz urte askotan, baina emoitza arrakastatsuagaz.

Eta hori, alderdizaleok, ez dau edonork egiten. Eustea, irautea, ez da geldi egotea. Gure gizartea ulertzea, bere eskutik joatea da, eta alkarregaz ibiltzen jarraitzea, zer garan aitzu barik.

Loiolako Inazio gogoratu nahi dut gaur. Bere bizitzaren erdian mundua ikusteko era guztiz aldatu eban. Gaztaroan, gerlari eta handikeriz beteta, gure historiaren zoritxarreko gertakizun tamalgarrienetariko baten eskuhartu eban: Nafarroako konkista. Baina horren ostean, bere gaixoaldiaren ostean, ideia batekin altxa zan, gizadi osoari zuzenduriko begirada eraldatzailearekin eta ezerezetik bere egitasmoa burutuko zuen erakundea sortzeko gauza izan zan: Jesusen Lagundia.

Sabino Aranak 1895an Alderdi hau sortu eban oso gitxigaz. Diru barik, botere barik, estatu barik. Sinismen bakarragaz: Euskal nazioak bizi behar ebala, Euskadi eratu behar zala eta baten batek Aberria eraikitzen hasi behar ebala. Inazio bere gaixoalditik misio barri batekin jaiki zan bezela, EAJ misio argi bategaz jaio zan eta 131 urte ondoren huraxe betetzen jarraitzen dogu.



— 131 URTE —
**ALDERDIA
GARA**



Hay algo profundamente vasco en las historias de Inazio de Loiola y Sabino Arana: la capacidad de reinventarse sin perder la esencia. La tenacidad de levantarse cuando las circunstancias son adversas. Y la claridad de saber, incluso en el momento más oscuro, qué es lo que de verdad importa. Esa es la virtud. Esa es nuestra virtud.

Nuestros mayores tenían un dicho: «Nork bere bidea egin behar du» — cada uno debe hacer su propio camino. No el camino que nos marquen desde Madrid o París. No el que nos diseñen quienes nunca han gobernado nada. El nuestro. El que hemos trazado con décadas de trabajo, de negociación, de presencia constante en las instituciones. Ese refrán resume la filosofía jeltzale mejor que cualquier programa electoral.

Cuando Sabino Arana fundó este partido en 1895, Euskadi no tenía parlamento propio. No tenía lehendakari. No tenía policía, ni Hacienda, ni universidad pública, y menos en euskera. No había nada de lo que hoy damos por sentado. Nada de lo que ha sido decisivo para mejorar, década a década, la vida de la gente.

¿Quién estuvo al frente cuando se construyó todo eso? ¿Quién lo arrancó, con la ley en la mano, y demasiadas veces contra viento y marea? EAJ-PNV.

No lo digo por vanidad. Lo digo porque importa recordarlo cuando alguien intenta reescribir la historia. Porque hay quienes llevan años diciéndonos que somos demasiado moderados, demasiado institucionales, demasiado “del sistema”. Y nosotros respondemos lo mismo de siempre: los resultados están ahí. Los hechos, ahí.

Y ya que hablamos de historia, permitidme un pequeño ajuste de cuentas, dicho con la mejor de las sonrisas. Nuestra trayectoria es tan sólida que ahora hay quien quiere ponerse la medalla de gente que hasta hace dos días denostaba, ninguneaba o directamente combatía. De repente abrazan al lehendakari Agirre y a Lauaxeta como uno de los suyos. O a Saseta. Y cualquier día de estos querrán un poco de Kondaño, un poco de Aitzol, un poco de Lizardi. De pronto se acordarán de Ziaurritz, de López Mendizabal, de Evaristo Bustinza. Y probablemente reivindicarán el trabajo en la clandestinidad de Koldo Mitxelena y Gerardo Bujanda, o la labor política y sindical de Uzturre como si fueran de los suyos. Y acabarán citando a Ajuriagerra y a Xabier Arzalluz como si siempre los hubieran defendido. Y espérate, que se emocionarán con Tene Mujika y con las mujeres de la Red Álava, con Kortabarria y Elgezabal, con Karmele Goñi, con Engracio Aranzadi, con Mikel Estabillio, con Fortunato Agirre, con Manuel de Irujo, y hasta con el lehendakari Ardanza y el lehendakari Ibarretxe.

Pues bien: no. Esa gente, esa historia, ese legado, es del PNV. Han sido gentes del PNV. Y de nadie más. No se apropia en un titular lo que se ha despreciado durante décadas.



— 131 URTE —
**ALDERDIA
GARA**



Y no se honra a nadie utilizando la parte del legado que a uno le conviene porque eso le sirva a un fin político concreto.

Ez. Ez da gauetik goizera oinordetzan hartzen defendatu nahi izan ez zena, gainera kontra egon direnean. Izen horietako bakoitzak Alderdi honetatik eraiki, sufritu edo amestu zuen Euskadi, ez bazter batetik begira. Eta atzo mespretxatu zituenak, gaur ez du haien txapela janzteko eskubiderik. Ez dauka!

Gaur, San Inazio honetan, ospatzeko, exijitzeko eta ilusionaturik egoteko arrazoiak ditugu.

Ospatzeko arrazoiak: Gernikako Estatutuak bizirik dirau. Euskal autogobernua, hainbestetan lurperatu nahi izan zutena, eutsi eta hazten da. Imanol Pradales lehendakaria dugu, seriotasunez, zorrotasunez eta epe luzera begira gobernatzen duena. Baditugu funtzionatzen duten erakundeak, egonkortasuna ematen dutenak eta herritarrek behar dituztenean erantzuten dutenak. Eta hori, bizi garen mundu asaldatuan, ez da gauza txikia: eta gure ekinez lortu dugu.

Eta pultsuan irabazi dugunaz ari garela: euskal ekonomia ondo dabil, sendoa da, zailtasunak zailtasun. Ez halabeharrez, ez zorte onez, ez berez. Hemen urtez urte, Jaurilaritzarik Jaurilaritza, zentzuz kudeatzen duen norbait dagoelako baizik, bilin-bolonkarik gabe. Beste leku batzuetan ez da aurreko prestaketarik egiten, hemen planifikatu egiten da. Kalitatezko lanak eta aukerak sortzeko eta ongizatea bermatzeko. Hori da gobernatzearen eta agintean egotearen arteko aldea.

Baina, argi eta garbi esan nahi dut, gauzak gordetzea atsegin ez zaidalako: ezin gaitezke bertan gozo gelditu. Mundua aldatzen ari da, eta azkar. Betiko merkatal-orekak, hornidura-kateak, egonkortzat jotzen genituen aliantza ekonomikoak: guzti hori gure begien aurrean berridazten ari da, eta hain ireki eta industrial den euskal ekonomiak ezin du beste alde batera begiratu. Washingtonen, Pekinen edo Bruselan gertatzen denak eragingo digu, nahitaez.

Y hay varios temas de los que todavía casi nadie habla en los mítines, pero de lo que sí hay que hablar si miramos un poco más lejos que la próxima encuesta. Por poner un ejemplo, que me preocupa: la Inteligencia Artificial. Muy pronto, no de aquí a un siglo, de aquí a pocos años, puede suponer una profunda transformación en el mercado laboral. Y quien no lo esté preparando ya, va a llegar tarde. Ahí está el reto: en preparar a las siguientes generaciones, a nuestros jóvenes para ese futuro que ya está aquí.



— 131 URTE — ALDERDIA GARA



Porque nuestro reto no es solo que Euskadi siga siendo competitiva, es que nuestras hijas e hijos puedan desarrollar aquí un proyecto de vida. Esto no se improvisa con un titular ni con una ocurrencia de última hora. Esto se prepara con formación, con anticipación, con políticas industriales y educativas serias. Y para eso, jeltzaleok, hace falta gente solvente. Gente que sepa gestionar, no gente que sepa solamente hablar. Y quien en este país ha demostrado esa experiencia y esa capacidad de anticipación ha sido EAJ-PNV.

Y claro que tenemos motivos para celebrar: hemos conseguido sacar adelante más de tres cuartas partes del acuerdo de investidura de Madrid. Pero también tenemos motivos para exigir. Porque el Estatuto lleva demasiados años sin completarse. Porque hay competencias que siguen sin transferirse. Porque hay acuerdos firmados que se quedan en papel mojado. Y nosotros no hemos venido aquí a conformarnos solo con las tres cuartas partes.

Lo que es nuestro, lo queremos. Y no vamos a parar hasta conseguirlo. Se esconden en supuestas “dificultades técnicas”, cuando lo que no hay es voluntad política para entrar a discutirlos. O sea: no hay voluntad política en el gobierno de Madrid para negociar algunos temas. Así de claro.

Madrileko zekenkeriaz ohituta gagoz, ikaragarritzko lana egin behar dala beti, badakigu. Eroapena, jasankortasun handia dogu. Baina ez dogu atzera egingo gauza bat legez adostuta dagoenean. Ez gabiltz mesede eske, zera eskatzen dogu: gobernatzen duena gobernatzen duela, itundutakoa, izenpetutakoa, dagokiguna bete dagiala. Ez betetzea onartezina da.

Eta gaurkotasuneko gai bi aipatu gura neukez. Sarritan gauza bat ziurtzat, egonkortzat, ezabaezintzat jotzen da, nahiz eta azken alditan egunero aldeztu behar izaten dogun.

Lehenengoa euskara da. Gure hizkuntza ez da apaingarri folklorikoa: aurreko belaunaldiak lotzen gaituen haria da. Herri batek bere hizkuntza galduz gero, bere burua ulertzeko modua eta munduari begiratzeko haren era berezia galtzen ditu. Alderdiak 131 urte daroaz hauxe aitortuz: euskararik gabe ez dago euskal herririk, gure zainetako odola lez delako, eta gure hizkuntza ez dela lehengo denboretako gauza, etorkizuneko hizkuntza baizik. Horregatik, kalean, administrazioan, enpresan eta zientzian gure hizkuntza hitz egitea, ikastea eta erabiltzea defendatzen dugu, konplexurik gabe eta hitz egiteagatik inori barkamena eskatu behar izan gabe. Atzerapausorik ez!



— 131 URTE —
**ALDERDIA
GARA**



Y el segundo tema que quería comentar es algo que también forma parte de quiénes somos: nuestras selecciones deportivas. Nos han aturullado en todos los medios de comunicación con la selección española de fútbol. No había otra cosa. Y algunos hasta querrían que le rindiéramos pleitesía. Una especie de ‘horcas caudinas’ a la vasca. Que quede claro: respetamos a todo el mundo. Pero cuando decimos que Euskadi es una nación, no lo decimos solo en los despachos: nosotras, nosotros lo sentimos en la grada. Y una nación que tiene su propia manera de vivir el deporte, sea o no un Estado, tiene también derecho a que su selección de fútbol, de baloncesto o de cualquier disciplina pueda competir como tal, con su camiseta y su nombre, en las mismas condiciones que cualquier otra. No pedimos un privilegio, sino normalidad. Pedimos lo que es normal en cualquier país que se reconoce a sí mismo: que quien quiera vestir la camiseta de Euskadi pueda hacerlo también en la máxima competición. Y en esto, como en todo, no vamos a dejar de insistir. Gora Euskal Selekzioa!

Y ya que estamos con el capítulo de las cosas que hay que decir claras: me hace gracia, y no en el buen sentido, escuchar estos días al PSE hablar de “prioridad social” para contraponerla a nuestra supuesta “prioridad nacional”. Es verdad que genera un titular. Pero vamos a ver: ese concepto de “prioridad nacional” no ha sido utilizando nunca por el PNV. Y ahora resulta que el PSE, ¡vaya usted a saber por qué!, nos lo adjudica sin ton ni son.

Y aquí conviene recordar algo muy sencillo que llevamos 131 años demostrando con hechos: en el PNV nunca hemos hablado de prioridades, sino de construcción nacional y construcción social. Nunca ha sido lo uno o lo otro. Ha sido siempre lo uno para lo otro. Para nosotros, construir nación siempre ha sido construir bienestar. El autogobierno no es un capricho identitario que nos entretiene los domingos: es la herramienta con la que hemos sostenido los servicios sociales y la sanidad pública, construido la red educativa y de Formación Profesional que hoy proyectan este país. Sin autogobierno no hay Osakidetza como la conocemos, no hay política industrial propia, no hay infraestructuras, no hay capacidad de decidir cómo se reparte la riqueza que entre todas y todos generamos. Aquí no hay dos prioridades. Hay una sola: construir Euskadi con toda su gente.

Euskadi kanpotik begiratu eta batzuetan ulertzen ez gaituztenei dinotset: EAJ ez da Alderdi eroso inorentzat. Ez gara inorenak. Ez gaude Madrildo gobernu baten poltsikoan, ezta beste inoren agendan ere. Zerbaiten alde egiten dugunean, Euskadiri komeni zaiolako babesten dugu. Aurka gaudenean, berdin. Inoren kontra joan gabe, baina Euskadiren eta bertoko jendearen alde beti.



— 131 URTE —
**ALDERDIA
GARA**



Eta, esan dudan bezala, ilusionatuta egoteko arrazoiak daude. Jeltzaleok, gaur 131 urte atzera begiratu eta harro sentitzen gara. Baina, batez ere, aurrera begiratzen dugu.

Eta aurrera begiratzen dugu ideia berriekin, ez oroiminarekin ondare bakartzat. Izan ere, Alderdi hau ez da inoiz errentaz bizi izan, eta ez gara orain hasiko. Mundua aldatzen da, herrien arteko harremanak aldatzen dira, botere-orekak aldatzen dira, eta guri lan bat dagokigu, eroso ez dena baina gurea bai: Euskal nazioak mundu berri horretan duen lekua aurkitzea. Ez atzoko lekua. Biharkoa. Horrek eskatzen du desberdin pentsatzea, duela hamar urte mahai gainean ez zeuden gauzak planteatzen ausartzea, eta ideia berriak betiko zutabeekin uztartzeko beldurrik ez izatea.

Eta biharko Euskadi hori behetik eraikitzen da: gure auzo eta herrietatik, udaletatik, Aldundietatik eta Batzar Nagusietatik. Jendeagandik gertu, entzuten, eta eguneroko arazoei erantzun zehatzak ematen.

Y el ilusionante camino que tenemos por delante, jeltzaleok, como siempre en nuestros 131 años de historia, lo recorrerán también nuevas generaciones.

Lo digo con orgullo, no con nostalgia: este Partido lleva toda su historia renovándose en las responsabilidades, pasando el testigo, porque nunca hemos entendido esto como un patrimonio personal de nadie. Las nuevas voces de este Partido ya están aquí, empujando, preparándose, asumiendo su responsabilidad. Lo estáis viendo y lo veréis en las próximas candidaturas electorales Y así seguirá siendo.

El PNV no nació para administrar el pasado. Nació para construir el futuro. Un futuro en el que Euskadi tenga más autogobierno, no menos. Más soberanía, no menos. Más voz en Europa, más capacidad de decidir, más herramientas para cuidar a nuestra gente, generar oportunidades y construir nuestro propio futuro.

Ese es nuestro proyecto. Ese es nuestro camino. Gure bidea. Y, como hemos hecho durante 131 años, seguiremos abriendo camino.

Alderdi hau etorkizuna eraikitzeke jaio zelako. Eta 131 urte geroago, gure historiari onena oraindik idazteko dagoena da. Geure bidea. Gure etorkizuna.

Atzera sekula ez. Aurrera beti.

Gora EAJ-PNV!

Gora Euskadi Askatuta!